

“Lea-Artibaiko Enpresen Lehiakortasuna Hobetzeko Proiektuen Lehiaketa”

Azaro Fundazioa, Lea-Artibaiko eskualdearen garapenarekin konprometituriko erakundeak da, enpresen lehiakortasuna hobetzea bere misioaren parte izanik. Ondorengo dokumentu honetan, enpresen lehiakortasuna bultzatu asmoz, abian jarri duen ekimenaren berri eman nahi da: **Lea-Artibaiko enpresen lehiakortasuna hobetzeko proiektuen lehiaketa.**

1.- HELBURUAK

Ekimen honekin lortu nahi diren helburuak ondorengoak dira:

- Eskualdeko lehiakortasunean eragitea
- Lea-Artibaiko enpresei lehiakortasuna hobetzeko jarduerak garatzen laguntzea
- Enpresek, beraien lehiakortasuna hobetzeko martxan ipiniko dituzten ekintzak saritu eta sustatzea

2.- NORI ZUZENDUTA

Lehiakortasuna hobetzeko proiektuen bat eskuartean duten Lea-Artibaiko enpresa industrial edo zerbitzuetakoei. Aurkeztutako proiektua 2012 urtean zehar eskualdean bertan martxan jarri beharko da.

3.- LEHIAKORTASUNA HOBETZEKO PROIEKTUAK HURRENGO EREMUETAN

Aurkeztutako proiektua hurrengo eremuren batekoa izan beharko da:

- **Produktua:** produktu berrien diseinu eta garapena eta daudenen hobekuntza nabarmena.
- **Prozesua:** ekoizpeneko prozesu berrien inplementazioa eta daudenen aldaketa teknika eta teknologikoa.
- **Merkatua:** merkaturatzea eta bezeroarenganako hurbiltasuna hobetzen dituzten marketineko teknika berriak.

4.- SARIAK

Lehiakortasuna hobetzeko proiekturik onena sarituko da, proiektua martxan jartzeko gastuetarako laguntza ekonomikoa emango zaiolarik; kostuaren %75 eta gehienez 5.000 €.

PARTE HARTZAILE GUZTIENTZAT ERAKUNDE EZBERDINEK EMATEN DITUZTEN DIRULAGUNTZETARA AURKEZTEKO AUKEREN AZTERKETA

Oharra: Epai mahaiak, aurkeztutako egitasmoen maila txikiegia dela erabakiz gero, sariak ezerezean geratu daitezke.

5.- AURKEZTU BEHARREKO DOKUMENTAZIOA

- Inskripzio fitxa (**TXANTILOIA 1**)
- Proiektuaren memoria (*gehienez 10 orri*)

Oharra: Sariketa honetarako proiekturako garrantzitsua izan daiteken beste edozein agiri aurkez daiteke.

6.- BALORATZEKO ORDUAN KONTUTAN HARTUKO DIREN IRIZPIDEAK

- Enplegua mantendu edo berriak sortzeko daukan potentzialitatea
- Enpresari ekarriko dizkion onurak
- Proiektuaren definizio-garapen maila
- Osasuna/osasungarri sektoreekin zerikusia izatea

7.- EPEAK

- Proiektuak aurkezteko azken eguna: **2012/03/30**
- Sari banaketa: **2012ko maiatza**

8.- INFORMAZIO ZABALAGOA ETA INSKRIPZIO ORRIA

❖ www.azarofundazioa.com

❖ azaro@leartik.com

❖ Bulegoa

MARKINA-XEMEIN: **94 616 91 72**

Lea-Artibai Berrikuntza Gunea

Xemein Etorbidea, 12-A